

KRISTIAN ETXALUZ GURI MINTZO

TXILLARDEGI

Una gudari, una militante de la clandestinidad y de la semi-legalidad actual. Una luchadora de Euskadi-Norte, como ejemplo de la lucha que ocupa los dos lados de la frontera.

Kristienne Etxaluz nos cuenta el proceso de su iniciación en la militancia vasca de la clandestinidad en los años 60 y su posterior evolución hasta nuestros días.

Ez dira anitz, ez, Franco-ren gartzelak barnetik ezagutu dituzten iparrak; eta are gutxiago, jakina, horien arteko emakumeak. Gaurkoan Iparraldeko gudari emakume bat mintzatuko zaigu, baxenabartarra bera, Iparraldeko Nafarroako alaba hobe; Kristian Etxaluz amikuztarra baita, Donapaleu ondoan dagoen Domintxaine herriskakoa (ofizialki: «Domezain»).

P. y H.: Zer diozu, Kristian? Zer kon-datuko diezu PUNTO y HORAKo irakurleei?

K.E.: Eztakit-pa zer erran. Ene bizia ezta horren interesantia!

P. y H.: Urte gogorretan ezagutu zenuen zuk gartzela, halere; eta polizaren ustez, «frantsesa» izanagatik ere, ETA-ko militantea zinen zu.

K.E.: Bai, hori bai. Eta Iruñeko gartzela ezagutu nian hemeretzi hilabetez. Hori kondatzea nahi duzia?

P. y H.: Bai, bai. Baina hastapenetik hasiz: nongoa zaren, eta abar.

K.E.: Sortzez Domintxinekua nuzu, «Etxaluzenia» izeneko etxian sortia. Enuzu, beraz, baserritarra; etxe hori ez baitago kanpañan, herriko kalian baizik. Ene aita, bestalde, etzuzun bera ere baserritarra. Ano-martxanta zuzun (ardo-saltzailea). «Artisan», badakizu. Hark ano diferentak erosten zitizun, eta behezik gero nahastu: Aljeriakua eman dezagun, eta Midikua, eta Gers-ekua; eta ano espezialak prestatzen zitizun. Ordian, klientien gostiarendako anoak egiten zitizun ano haiek, eta gero «amerikano» batzuek saltzen. Ene aita, hitz batez, «petit bourgeois» horietakua zuzun; eta bizpahiru etxeren jabe ere bai Amikuzeko partian. Baina krisia jin zuzun, eta ene aitak etzuzun industrializatu nahi; eta luberritzea erabaki zizun. Eta horrela hamar urtez egon zuzun baserritar. Baina sortzez etzuzun baserritarra, eta nihaur ere ez. Kabaleak eztizut ongi ezagutzen. Amak bai: ene ama baserritar sortia

da. Ni berriz: enetako behi guztiak berdinak tuzu, aurpegi berdinekuak...
P. y H.: Zu Domintxainen bizi zira halere. Ez dea?

K.E.: Kanpua ibilia nuzu luzaz. Baina orain dela sei-zazpi urte, Domintxinen bizi nuzu amarekin. Aita hiltzian, eta hiru urtez, ene anaia egon zuzun «Etxaluzenian»; baina gero, bakadizu, bere kondu eman zuzun: marexala duzu, albaiteua, eta Angelun instalatu da. Eta ama bakarrik ikusi nahi ezta, Domintxinera itzuli ninduzun. Baina asteburuetan eniz han batere egoiten; eta Donibanerat eta beste lekutarat joaiten nuzu.
P. y H.: Irakaskuntza utzia duzu beraz?

K.E.: Españolezko lizantza badizut. Eta izkiriatzea maite dut: ezenario

Yo pasaba propaganda de Euskadi Norte a Euskadi Sur – Kristianne es de Baxe-Nafarroa – y me apresaron en Dantzarinea por colaborar con ETA

P. y H.: Eta nola hasi zinen abertzale-tasunaren sailean?

K.E.: Aspaldian hasia nuzu! Ni ikasle ninduzun Bordalen 1961-an; eta han Claire Noblia ezagutu nizun. Eskualdunen artian biltzen gintuzun; baina ez pentsa: phestaren egiteko eta horrela. «Etudiants Basques» talde hartan kezkarik etzegoen. Bordaleko talde hura notableen seaska bat zuzun. Badakizu: «devenir des épouses des Conseillers Généraux». Aments bat ordian! Baina Claire-k bazian garra. Eta oraino sortia etzen Enbata-ren inguruan bildu gintuzun. Hemezortzi urte nitian ordian. Eta ordian ezagutu zintudan zu. Etzira orhoit? Bai zu, bai zure emaztia, bai Madariaga eta bestiak. Ordian jin berriak zinezten Iparralderat.

P. y H.: Bai. Egia duzu. 1961-an iritsi nintzen ni zuengana.

K.E.: Eta paper batzuk pasatzen-eta

batzuk egin ere bai. Baina orai ezer guti horretaz.

hasi ninduzun. Amaren kotxian paperak untsa gorde, eta Bilborat. Eta Artxandara heldu, eta huelga jenerala. Eztakizut noiz: 1962-an menturaz. Oktapilla pillo bat. Eta bertakua erabat beldurtu, eta... paper guztiak ene aitzinaren ere!! ETA-ren propaganda zuzun nunbait. Ni beldur, eta berdenboran hasarre. Hastapen ona enia!

P. y H.: Eta gero?

K.E.: Ni Tolosan ninduzun, Toulousen jakina; midikuntza ikasten ari. Eta astero astero pasatzen nizun muga, beti paperekin. Banizun senargaia ere bai, Hondarrabian; eta ezta-ki askotan zergatik joaiten nintzen bestalderat: senargaiaren ikusteko ala paperen ekarteko... Anitz aldiz egin nizun bidaia. Inoiz enuen ezetzik erran. Eta 1964.ko udan, Enbatak «stage» hoietako bat muntatu zian, eta ETA-ko batek proposamendia egin zautan: hantik goiti astero-astero Hegoalderat paperen pasatzia. Nik

baietza eman niozun. Eta bi pausu eman nizun: bata Hazparneko Kolexioan «Sciences Naturelles»ko irakasle gisa hasi, eta bertzea Iruñen matrikulatu: Opus-ekoekilan eta Biologiaren ikasteko estakurian.

P. y H.: Eta pasatzen hasi beraz?

K.E.: Garai hartan astero astero pasatzen ninduzun. Batere enakizun zer neraman: hauze duzu egia. Baina pasa, astero. Dena untsa joan zun hiru hilabetez. Baina 1965.ko Urtarrilaren 6.an, Errege-egunez, Jokin Garate ETA-koa erori zen Iruñean; eta «Maite» delako bat aipatu zizun. Jokin gizajoa eri zen, oso gaizki; tirokatia izan baitzen harrapatzerakuan. Hots, autoa kargatia zelarrik, Belaten uzkaile zitaion kotxea egun batzuk lehenago; eta kotxe hura ene izenian zegoen. Polizak dena lotu, eta ene zai zegoen. Kotxia halere Elizondon zegoen, eta bila joan behar zen; eta

Otsailean ni joatean, sei politziak inguratu ninduten Dantxarian, eta frase beldurgarri hura entzun nizun: «queda usted detenida». Zer egin sei mitralletaren artean?

P. y H.: Beldur handia?

K.E.: Bai, dudarik gabe. Baina nik kasu hoietan lo egiten dut. Hotz handia zegoen, hori bai: untsa orhoitzen nuzu. Baina lurrean etzan ninduzun, eta... bertan lo, hiru orenez! Eta gero Iruñera. Egun batzu lehenago, Urtearrilaren 29.an, bonba bat eman zioten «Monumento a los Caídos» delakoari, Iruñean; eta, gezurra zena, «coinciden las fechas» esan zizuten, eta dinamita hura nihaurk eraman nuela erran! Ia kotxia nori erosi nion, eta nik «Madariaga-ren sekretaria bati» erantzun, eta horrela. Baina enekiko plana egina zen: gartzelara nindozun, «por colaboración con ETA».

P. y H.: Eta jo egin zinduten?

K.E.: Ez; ikutu ere ez. Kotxeak zeukan zuloa, bestalde, etzuten sekula atxeman!

P. y H.: Eta noiz arte horrela?

K.E.: Hamalau hilabetez egon ninduzun Iruñeko gartzelan juzkatua izan haiduru. «Terrorismo» eta «rebelión militar» aipatzen zuten ene kontra; eta 12 urte eskatzen. Eta 1966.ko Maiatzean «Consejo de Guerra» egin zautaten bertako kasernetan. Eta, azkenean, 28 hilabete presondegi bota.

P. y H.: Berehala irten zinen beraz?

K.E.: Ez, ez. Zeuden indultoekin-eta berehala atera behar nikezun; baina ez eta ez. Bospasei aldiz egin nuen gose-oporra: zortzi egunetatik hamasei egunetara. Ez irteteko, hori ez; baina zergatik eninduten ateratzen jakiteko bederen. Azkenean, beste gose-opor bat egiteko mehatxupean, 1966.ko Abuztuan libratu ninduten.

P. y H.: Eta etxe aldera?

K.E.: Aita, ama eta Xarriton jin zituzun ene xeka mugara. Xanpaña edan genizun ausarki! Donapaleun pastoralara zegoen egun hartan: eztut sekula ahantziko. Baina aita eta ama ahalge zituzun, izigarri ahalge. Alaba halako politika saltsa batetan sartuta. Ene! ...Hura afruntua!

P. y H.: Eta «politika» delako hori utzi?

K.E.: Ez, ez. Enbata-koek izigarrizko harrera berua egin zautaten. Eta egia-
ren erraiteko: arrunt mogitu ziren ene alde. Eta ondoko eletzionatean «Enbata»-ren izenean presentatzeko eskatu zautaten. Eta 1967.ko bozetan



Haran presentatu zuzun kostaldian, eta nihaur berriz barneko aldian. Berak % 4,3 atera zuen, eta nik berriz % 4,95 edo, ia-ia bortz. Mintzatu nintzen leku guztiak, denak, bethe-betheak izan nitian. Badakizu: ninintzen delako «espèce rare» hoietakua, eta «un phénomène de masse» gertatzen zuzen leku guztietan. Ados ez izanik ere, merak berak jiten zituzun nire agurtzera!

P. y H.: Deputaturik ez ordea Enbata'rentzat?

K.E.: Ez, ez. Baina ordian Enbataren lantzatze eta bultzatze-tan, «liberatzia» proposatu zautaten. Kobratu gabe, jakina; Enbatak ezpaitzuen sosik. Baina Miarrizko «Hôtel du Château» delakuan jarri ninduzun bizitzen, Galant, Patxi Noblia eta Anamari Ithurralde-rekin, eta Enbataren

«zuhurtzia» bildu dut, ene gustoko. Ene ustez, eta hauxe da inportantia, etsai gehiena ezagutu behar dugu; eta etsai gehiena borrokatu. Ausikitzen duten etsaiak, ferekatu egiten dira. Eztago bi biderik: etsai gehienaren kontra borroka egin, ala aldegin. Bertze guztiak eztira bide egokiak. Eta orai Euskal Herrian gauza bera duzu: etsai gehiena nor den aztertu behar da. Eta nahiz askotan gogorra izan, aldamean ausiki bertzerik egiten ezten etsai txikiari, kasurik ez. Txanda etorriko zaio. Eztu balio ausikitzen dutenekin aharratzea.

P. y H.: Euskara ez duzu ahaztu behintzat...
K.E.: Ahantzi ez, baina ikasi behar izan dizut. Zinez. Ene etxia ezta base-
rria, eta frantsesez hitzegiten zen beraz. Eta egun ere frantsesez mintza-

La burocracia es el gran peligro de la izquierda. Los proyectos de izquierda han de librarse de ese peligro

kondu. Baina Paueko Unibertsitatetik Pariskora joaitia pentsatu nizun gero, eta horretara Vincennes-en gertatu ninduzun 1968.ko gertakarietan. Eta bolara batez horretara «gauchista» erran ohi den horietakoa izan ninduzun.

P. y H.: Eta orain?

K.E.: Errana dautzut, nik uste: anaiak ene ama bakarrik uztean, Domintxinerat itzuli nintzen. Eta bertako jendia ezagutu, eta bertako problemak bertatik bizi. Orain

tzen natzaio amari Domintxinen. Hauxe duzu egia!

P. y H.: Erraztasuna baduzu halere, eta Amikuzeko euskara ere bai

K.E.: Ez pentsa. Nik militanteekin ikasi dut euskara: bai Donapaleukoekin, jakina; baina bai zuokin guztio-
kin ere. Izigarri sofritzen dizut hain zuzen aski untsa emaiten eztudalako. Biziki maite dut izkiriatzia, baina eniz gauza. «Bègue» nuzu, totela; eta horrek frustratu egiten nau. Eztut Amikuzeko eskuara aski untsa ezagutzen,

ATZOKO ETA GAURKO GUDARIAK

ATZOKO ETA GAURKO GUDARIAK

eta «batua» hori ere ez! Baina «batua» behar da; eta nahasketaren ondorio da, maitasunaren fruitua, euskaldunen arteko gurutzamenduen fruitua. Toute innovation est le fruit de la reproduction sexuée des informations. Eta euskara bera ere horietakua duzu.

P. y H.: Eta orain zertan zara? Borrokari utzi al diozu?

K.E.: Ez. Orain Donapaleu-ko «Herri Taldea»n ari nuzu lanean. Berrogei lagun gara, kolore guztietakoak: Enbata, «Izan», EHAS. Abertzale sozialistak gara gutxi gora-behera, baina teorizaziorik gabe. 22 herritan gaude. Turismoaren kontra eta lanpostuen alde egiten dugu lan. Eztuzu beti erraza: hemengo «Izan» hori, zuen arteko ESB edo PNV litzateke, eta hemengo EHAS, horko EIA edo. Badiugu, bestalde, bi talde armatu: «Iparretarrak» bata, eta «Hordago» bestea. Zuen artean bezala, hemen ere batasun gehiago behar genuke. Dena dela, ekintza armatuak hasiak dituzu hemen; eta aitzina joan tuzu. Zuen artean, areago erraiten ahal da: Rupérez-en frakasoaren ondoan, Hegoaldean talde armatu bakar bat bertzerik eztagoela erraiten ahal da, ene ustez.

P. y H.: Eta zer esango zenuke zuk Hegoaldeko egoeraz?

K.E.: Eztudala nik letzionerik eman beharrik! Baina han ere jauzi kualitatibo bat emango bada, Iparraldea

nak izan dituzu gauzarik inportanteenetako bat. Nik eztitut errefuxiatuak adoratzten; baina errefuxiatuek bertze kolore bat, bertze estilo bat, eman daukote hemengo abertzaletasunari. Orain gorderi dauden errefuxiatu horiek, esate baterako, geure etxietan ixilik bizi direlarik, fruitu ekarriko dute. Dudarik ez. Nahis ghetton ibili gehiegitan, eta zomait aldiz hanka sartzea ere.

P. y H.: Galdera bat, Kristian. Zuk nafartar senditzen duzu zeure burua?

K.E.: Egia erranen dautzut: ez. Ni Amikuztarra nuzu, baxenabartarra menturaz, guti halere. Hemen nafartasun hori hila da herrian.

P. y H.: Eta Les Amis de la Vieille Navarre eta antzekoak?

K.E.: Ez dakit bertzeek zer dioten. Baina nik, nihaurk alegia, ez tuz ezer senditzen. Urrutibeheiti medikua, eta antzekoak, kontserbadore amorratiak dira, pétainistak. Horien ustez PNV-a «extrême gauche» duzu! Intxauspe, Dhermitte, eta Arbeloa-rekin dituzten «kontaktuak»... Tira, tira! Terrain piégé! Deusik ez! Askoz inportanteagoa duzu kooperatibismoa. Hemen lanpostuak behar ditugu, eta turismoa bukatu. Hemen Europa-ko Kalifornia montatzea, heriotza litzateke; eta horren gibeletik ari tuzu teknokratak.

P. y H.: Eta hori zer da?

K.E.: Hau? (Eta liburu txiki bat eskuetan hartzen eta erakusten). Hau Khadaffi-ren liburu bat da. Herri Ba-

P. y H.: Bukatzeko Kristian, pasadizuren bat kondatuko al diezu PUNTO y HORAKo irakurleei?

K.E.: Banuke, bai, pare bat... (Eta irri egin du). Honatx seguru aski ezagutzen eztuzun bat. Hau ere ETA-ko jendeekin eta ni xofer hutsa nintzela. «Norbaitek» etorri behar zuela Bizkaira, itsasoz, eta nik hango kai batean hartu, Barakaldora eraman, bertan igurikatu, eta berriz «operazione»aren ondoren, kaira, ontzira, eta neure aldetik etxera, Iparralde honetara beraz. Joan nuzu Elantxobera. Eta han, beha, eta beha, eta 24 ordu beha, Ea-n preseski. Pentsa zazu kotxe frantses bat kai txiki hartan egun oso batez!! Azkenean bortura agertu zuzun ontzia; eta bertatik Etxabe eta Gautxo jexi. Ontzian beha, bada... Lezo! Ontzian egona zela itsasbetean, eta baratzeko... Joan gaituzu Barakaldora, ostatu batetara gauean. Eta bihar-munean alimaleko fabrika horietako batetara... Paga-ren bila, gero jakinen nuenez. Ez pagarik, ez deusik: informazio txarra nunbait! Eta gibelera berriro: Ea-ra. Nik, artean, «Dauphine» berde hartan, bi alimaleko pipatza, hamalauko gerlakuak nik uste. Enkas, badakizu... Gure bi lagunak ontzira, hutsik, eta... etxe aldera! Zer eginen dugu? Abiatu nuzu Lekeitio aldera, eta bidean... pott! Autoa gelditu! Putxa! Pana! «Bielle fondue»... Diru pillik ez nire gainean. Zer egin? Eskuaraz, ahal bezala, Lekeitioko euskara bitxi haren aztarnarik harra-patzen ez nuelarik, kotxea konpon-tzera eraman nizun. Lekeitioko harakina omen zuzun. Alimaleko pipatzarrak, dena dela, harakin harek gorde zitian. Dirua etzen heltzen, artian. Ezin ordain!... Eta harakin harak ordian, gauza konpondu nahian, gaua Donostian berakin pasatzia proposatu zautan!... «Una noche con la francesa», nunbait... Julen-i azaldu nakon dena, eta kondia zer bilakatu zen eztaizut; baina nik enian pasa gaua harekin!...

P. y H.: Oso istorio polita da benetan.

K.E.: Egon, egon! Oraino eztaizut hoberena. Hondatu zen «Dauphine» berde hura... zurea zen!!

P. y H.: Bada, benetan, ez nekien ezer asuntu horretaz. Kotxea organizazioko norbaitek hondatu zidala, hori bai.

K.E.: Bada «hori» hura, ni ninduzun.

Orai badakizu! Eta barre egin dugu biok luzaz. ■

«Euskadi no tiene solución sin la independencia y la independencia nunca vendrá sin Euskadi Norte»

behar duzue. Euskal Herriak soluzio-nerik eztu independentzia gabe; eta Iparraldea gabe independentzirik ez-tuzue sekula izanen. Musean bezala, independentzia lortzeko Euskal Herriak txikiaren alde jokatu behar dizu. Hau frantsesez erranen dautzut, barka: il n'y aura pas de saut qualitatif sans relations avec le Nord. Ezta bi biderik: independentzia gabe Euskal Herria ezta salbatuko. Eta erre-presioa gabe eta borroka latza gabe, libertaterik eztago. Berrogei mila errefuxiatu, eman dezagun. Eta, zenda-ko ez? Hau ezta faxismoa. Faxismoa irabaztean ager daiteke, ez burrukaren hastean. Ene bizian, eta hemengo bertze askorengan, errefuxiatuekin izan ditudan hartuema-

tasunak seriotan aztertu behar luke Khadaffi-ren iraultza. Oso interesantia duzu, zinez. Ezker berria hau da.

P. y H.: Beltzagandik hurbil zeundela uste nuen.

K.E.: «1984» liburua, esate baterako, biziki maite izan diat. Lehenengo bi partiak batez ere. Baina hirugarrena «suicidaire» duzu. Eta nik bizian sinesten dut. «Elkhar» eta «bakhar» sustrai beretik datoz. Lehenetasuna taldeari. Ni eniz nihilista.

P. y H.: Ez dakit irakurleek hau uler-tuko ote duten...

K.E.: Berdin da. Burokrazikeria da arriskua ezkerrean. Ezkerraren pro-jektuak arrisku horretatik libratu behar du bereziki. Khadaffi-ren bidea horregatixek da interesantea.